

Zientzia fikzioak askotan fantasiako munduak, jendarte utopikoak, distopiak... bizitzeko aukera ematen digu, baina baita etorkizuna gaurtik pentsatzen hasteko aukera ere. Hemen, zientzia fikzioan agertutako zenbait asmakizun interesgarri.

Panglos itzultzaile automatikoa Antoni Olivék idatzitako *Qui vol el panglós? (Zeinek behar du panglosa?)* eleberri laburretik ateratako asmakizuna da: hitz egindakoa jatorrizko hizkuntzatik hartu eta berehalakoan itzultzen du ahots tonu propioan. Aldi berean, emititzen den ahots originala ezkututzen du, bi ahots ez emititzeko. Hartzaileak ere nahi duen hizkuntzan jaso dezake mezua. Itzulpena nahiko kalitate onekoa da, baina munduko 42 hizkuntzatan bakarrik da posible oraindik.

Neal Stephenson-en *Diamond Age (Diamanteen aroa)* eleberrian liburu elektroniko egokitzailea agertzen da. Bertako protagonista den Nell klase baxuko neskatok bere hezitzailea izango den liburu elektroniko berezi bat jasotzen du. Liburua bere izaera eta gertakarietara egokitzen da, irakaspen berriak emanez. Harrigarria bada ere, bertan agertzen diren istorioak antzezteko, benetako pertsona ahotsak antzezten dituzten *ractore*-ak erabiltzen dira. Ahots teknologien sintesia garatuta dagoen arren, intonazio errealak benetakotasun gehiago ematen omen dio kontakizunari.

Dispossessed (Pobretuak) eleberrian, aldiz, Ursula K. Le Guin-ek *ansible* delakoa asmatu zuen. Eleberrian, anarkismoa eta iraultza soziala, kapitalismoa, kolektibismoa, indibidualismoa aztertzen ditu. Aldi berean, hizkuntzak pentsamendua egituratzeko duen gaitasunaz ere hausnartzen da. *Ansible*-aren bidez, mezuak argiaren abiadura baino azkarrago transmiti daitezke, galaxia arteko komunikazioak posible eginez. Oso urrun gaude asmakizun horrek proposatzen duena lortzeko, baina horren ondorioz zientzia fikzioaren literaturan behin baino gehiagotan erabili izan da asmakizuna.

Bere garaian egindako aurreanetan gaur egungo garaietara egokitzen den bat badago: Bruce Sterling-en *Islands in the Net (Irlak sarean)*. 1988an idatzi zuen, eta gaur egungo Internet aurreikusten zuen, baita orain *wearable* edo jantzigarriak diren teknologia gailu asko ere, erloju, zapatila eta betaurrekoak, adibidez. Munduaren ikuskera oso berezia da, bertan Sobietar Batasuna desagertu ez bada ere, antz handia duena gaur egungo egoerarekin.

Batzuk jada gure artean dira eta beste batzuk auskalo iritsiko diren ere, baina zientzia fikzioak batzuetan etorkizuneko erronkak aurreikusteko balio digula ezin uka.

Irudiaren Iturria: [Cicret Wearable Projection Band](#)

Iturri originala:

<http://www.jakin.eus/blog/telepolis/-gorka-julio/zientzia-fikziozko-asmakizunak/72>

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)